



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Marco Mezquidak Ravelen musikaren interpretazio pertsonal eta paregabea eskainiko du, jazz ukituarekin

- Piano jole katalana bihar, asteartean, urriaren 6an, arituko da (19:30ean), **Aleix Tobías** perkusio jolearekin eta **Martín Meléndez** biolontxelo jolearekin batera.
- Kontzertu horrek inauguratuko du Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako BJC Arriagan zikloa.

**Bilbon, 2020ko urriaren 5ean.**- Bihar, asteartean, urriaren 6an, lehen mailako musika hitzordua dugu Arriaga Antzokian. 19:30etik aurrera, **Marco Mezquida** jazz piano jole moldakorrak, inprobisatzaileak eta konposatzaileak, Maurice Ravelen imaginario musikal eta pertsonaletik egingo duen bidaia onirikora gonbidatuko gaitu; bere legatuaren modernotasunetik eta erakarri zuten musiken eklektizismotik egingo den ametsa: klasizismo frantsesetik birtuoso erromantikoetara; musika herrikoiarekin egindako esperimentaziotik bere garaikideen eraginera eta jazzaren gorabidera. Beraz, ez da kasualitatea kontzerturako aukeratu den izenburua Ravel's dreams izatea.

Marco Mezquidak Ravel bikainaren musikaren errekreazio pertsonal eta bakarra emango du, **Aleix Tobías** perkusio jolea eta **Martín Meléndez** biolontxeko jolea eszenatokian lagun dituela. Hirukoteak Groovez bustiko du euskal konposatzailearen musika, inprobisazioaren bitartez hedatuz eta gaur egungo musikaren ehundurak emanez.

### **BJC Arriagan**

Marco Mezquidaren kontzertua Bilbaína Jazz Clubaren eta Arriaga Antzokiaren arteko lankidetzaren emaitza da. Denboraldian zehar zenbait kontzertu emango dituen «BJC Arriagan» zikloa bultzatzen dute.

Zikloaren hurrengo hitzordu baieztatua abenduaren 15ean izango da. Perico Sambeat saxofoi jolea musikari handiek osatutako boskotearen buru izango da, jazz eta flamenko konbinazio zorrotz eta berritzailea eskaintzeko.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - TEATRO ARRIAGA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)